

Urbil sortu zaizkien —lagun ez ederrak—
moztu dizkiet kontuz zarba me alperrak.
Orren garbi jarriaz datozke lasterrak
udan goxo zaizkigun ale txit xiterrak.

GAZTAIAK

Orain ogei urte argi geiago geneuzkan, eta maiatzetik urrillaren amairarte, mendi goietan ibiltzen ziran. Gaurko egunean gutxiago dauzkagu: irurogei bat. Etxetik urreko baso, zelaiño te aitz-artetan ari oi dira bazka billa. Otsail eta martxo bildots zenbait ematen dizkidate. Artxo ta bildotsak azi ondoren, ardiak duten esnearekin gaztaiak egiten ditugu. Azuriak eta gaztaiak irabazi polita dakarkidate.

Doiñu: «Iriyarena» bezela.

Eskortan ditut nere ardiak
azaro-maiatz tartean;
ez dute goian egon luzerik,
otza bait da uda-larrean.
Urtarrillatik azuriz daukat
bildostegia betean:
gose dirala ezta girorik
ixten dituen atean.

Lankizun dadut ardiak batzen
jorraila eldu ezkerok,
azkar saiatus bear ditut, ba,
nereak jeitzi gauero,
apatza (1) bete esne bistsua
laket bait dugu goizero:

(1) Kaiku.

gogotik, beraz, eman ditzagun
Jaunari eskerrak bero.

Nere emazteak gaiñeko esnez
gaztaiak dagiz antzetsu.
Irazi lenen oiala zear,
sutan ondoren epeldu,
kaiku barnean esne apur bat
gantzagitan lerdekatu (2),
esne lodia mazkelu baten
eskuz nai zotzez zaflatu (3).

Mamia gero bi eskuz digu
estu-azi ta zeatzen;
mazkelu barne alde batera
du berriz ere metatzen,
orrela bildu ta pelotatuz
oso-osorik oretzen;
mamia moduz moltzo egiña
gaztai ore da biurtzen.

Ebaki aitzoz gaztai ore
zati askotan bereziz,
puska bakoitza eskuz artuta
gaztai-zumitzan (4) ler-aziz,
ondoren beste puska bat ere
berdin eskukin igortziz,
or duzu laster zumitza gaiñez
zazpi edo zortzi zatiz.

Zumitza gaiñez daukazunean
eskukin goitik sakatu;
gero farastan gaztai ontzian
guztia iraulko dizu,

(2) Zapaldu.

(3) Erabilli.

(4) Gaztan-ontzi,

era berean berriro ere
atezu-sakan ertsatu,
osoz dakion esku artean
gaztan-gazura txukatu.

Azpia guztiz esku maitaki
dío zurnitzari kentzen;
gaztaia su urbil, txinpartai soka
arri gaiñean du jartzen,
eskuz biraka bi aldetatik
pixkat orizkatu daiten;
orla gaztaian be-alde biak
dizdiz zaizkizu gelditzen.

Ostera ere zumitz azpia
lengo tokian jarririk,
bi eskuekin zanpatu oi du
saiets-alde bietatik.
Eta berriro su urbil du jartzen
gorriztu dedin osorik;
zumitz-troxea (5) kendu ostean
orobat dagi oraindik.

Zumitzan sartu berriren berri,
lokiz estutu troxea;
eman gatza ta ipin berezi
zumitz ta zumitzpekoa;
ken zutnizetik jaramonez
ta gatzatu bestaldea:
maiz egunetan bira dagio,
leon emanik itxurea.


Gaztai oreá eduki duzun
mazkeluaren (6) barnean

(5) Lotura.

(6) Galdara,

gelditu zaizun gatzura
jarri egizu sutean.
Berotu baratx (7) gaztanberea
gaiñetik ager artean.
Artzazu gero irazkiz ondo
ta jarri zisku (8) batean.

Nere andreak ongi dakizki
lan onek ditun arretak
ta urte barruan beti ditugu
etxean gaztai txit autak.
Auzoan ere opa ditzuzte
gure lanaren alortak.
Orla egiñik sortzen zaizkigu
maite-suaren pinportak.



(7) Geldiro.

(8) Pardel.